IRALE

Deialdi itxiaren emaitzak (2004ko ekaina)

	HE1	*HE2*
Matrikulatu	**233**	**384**
Ez aurkeztu	25	18
Aurkeztu	208	366
Azterketa gainditu	82	143
% gainditu / aurkeztu	39,4	39,1
Etengabekoa	6	28
HE lortu	88	171
% etengabekoa / gainditu	7	20
% lortu/aurkeztu	**42,3**	**46,7**

Berria: Hezkuntza Bereziko ordezkoek R300 ikastaroa egiteko aukera izango dute. Eskaera egiteko epea 2005eko urriaren 11tik 21era arte (egun biak barne) izango da.

Honez gain STEE-EILASek eskatu du Bizkaikoek R300 ikastaroa egitea, zeren eta orain arte R500ean sartzen zituzten guztiak

Hezkuntza Laguntzako Espezialistei IRALE-n parte hartzeko dagokien kupoa %10 da, baina ez da bete. Hiru herrialdeak kontutan hartuta 2004-05 ikasturteko bataz bestekoa % 9,11 izan da.

5000 ikastaroa egiteko onartuak zaudetenak, datorren urtarrilaren 10an, goizeko 12etan Bilboko Delegaritzako areto nagusian aurkeztu behar zarete★

Aldaketak Ordainsarietan

(15 paga jasotzen zutenentzat soilik)

2003ko lan-hitzarmenean (indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa) jasotzen da, 2005eko urtarrilatik aurrera lan-legepeko langile guztiok, bai irakaslek eta bai hezitzaileok, bi aparteko paga (hilabeteko ordainsaria + aintzintasuna) jasoko dutela. Paga hauek ekainean eta abenduan ordainduko dira, hain zuzen ere.

Urtarrileko aparteko paga kobratzen zutenek, ez dute paga hau jasoko baina urteko ordainsari gordinaren zenbatekoa berbera izango da. Beraz, urtean zehar beste modu batean banatuko da.

Orain arte 15 paga kobratu dutenen nominetan, aurrerantzean *soldata, aintzinatasuna eta 19art aparteko paga* kontzeptuen hileroko zenbatekoa handiagoa izango da.

Horren arrazoia honako hauxe da: aipatutako kontzeptu horiek, orain arte hamabost pagatan banatuta jasotzen ziren, urtarriletik aurrera hamalau pagatan banatuta agertuko dira★